

Etxebizitza: eskubidea edo pribilegioa?



HAIZEA NÚÑEZ
ABOKATUA

Bigarren Mundu Gerra ostean Mendebaldeko hainbat herrialdetan garatu zen ongizatearen estatuaren marko kontzeptualetik edan dute Euskal Herria zapaltzen duten Frantziako eta Espainiako estatuak “etxebizitza eskubidea” euren zuzenbide sisteman txer-tatzeko. Lehenengo kasuan, nahiz eta 1958ko konstituzioan idatzita ez topatu, jurisprudentzia konstituzionalaren arabera “pertsona guztiok etxebizitza bat erabiltzeko aukera estatuak lortu behar duen helburu konstituzionala da”. Aldiz, Espainiako Estatuko konstituzioaren 47. artikuluan hitzez-hitz aurki dezakegu: “Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek beharrezkoak diren ingurua-barrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desager-rarazteko, interes orokorraren arabera arautuko dute luraren erabilera. Era-kunde publikoen hirigintza-jarduerak gainbalioa sortzen badu, gizarteak ho-rietan parte hartuko du”.

Pertsona guztiok ez daukagu etxebizitza bat erabiltzeko aukerarik, denok behar dugun arren. Beraz, nortzuk gaude prest errealitate hau aldatzeko?

Hego Euskal Herrian, marko auto-nomikoa erabiliz, aurreko hamarkadan bi parlamentuek egindako “Etxebizitza legea” eta “Etxebizitza eskubidearen Lege Forala” indarrean daude hurrenez hurren. Bietan, etxebizitza eskubidea duen subjektua lurraldean errolatuta dagoena da. Hauxe da, legea eskuetan, gaur egun indarrez estatu egiturek de-fendatu beharreko etxebizitza eskubi-dearen esanahia.

Egunerokotasunean herritarrok ikus-ten dugun panoramak, ordea, etxebizitza eskubidea derogaturata dagoela erakusten

digu edo, are gehiago, haren aplikazioan pribilegio tankera duen eskubidea bera zalantzan jartzera eraman ahal gaitu. Etxebizitza eskubidea bada, zergatik epaileek bidaltzen dute Polizia jendea euren etxetik botatzera bestelako alter-natibarik eskaini gabe? Etxebizitza es-kubidea bada, zergatik onartzen da alo-kairuekin eta salerosketekin aberasteko negozioa egitea? Etxebizitza eskubidea bada, zergatik batzuek bizitza osoa ordaintzen egon behar dute eta beste batzuek, jaio diren familian jaio direlako, aukera dute etxe bat dohainik edo oso gutxi ordainduta erabiltzeko? Etxebizi-tza eskubidea bada, zergatik daude etxe-rik gabeko pertsonak eta pertsonarik gabeko etxeak?

Eskubidea ala pribilegioa den ezta-baidatzea intelektualki erakargarria izan arren, ez digu laguntzen arazoaren mui-nari heltzen: gaur egun pertsona guztiok ez daukagu etxebizitza bat erabiltzeko aukera, denok behar dugun arren. Beraz, nortzuk gaude prest errealitate hau aldatzeko? ●